



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko apirilaren 1a

22 ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa, Nafarroako Gobernua kontrapasan ehizan aritzeari buruz neurriak hartzera premiatzen duena, Andres Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (3. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua Gobernuko Lehendakaria hautatzeko modua aldatzera premiatzen duena, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Tuteratik Ablitasa doan NA-3010 errepidea zabaltzeko obretan bizikletentzako bidea paratzeari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egin (5. or.).
- Sunbillako Udalaren egoitza den eraikinaren egoerari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egin (5. or.).
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edukiak erregulatzeari buruzko galdera, Fermin Ciaurriz Gomez Foru Parlamentari jaunak egin (6. or.).
- Ablitasko liburutegiko lanpostua betetzeari buruzko galdera, M^a Isabel Arbonies Bermejo Foru Parlamentari andreak egin (6. or.).
- Udal ikastolak Nafarroako Gobernuaren sarera pasatzeari buruzko galdera, Inmaculada Matias Angulo Foru Parlamentari andreak egin (7. or.).
- Europako Batasunak kutsaduraren alorrean onartu duen jarraibidea Nafarroan aplikatzeari buruzko galdera, Jesus Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egin (8. or.).
- Barañaingo tentsio altuko lerroa kentzeari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egin (8. or.).
- Osasunbideak ematen dituen zerbitzuetako itxoin zerrendari buruzko galdera, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egin (9. or.).
- Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Senatuaren aurrean Itoizko urtegiaren gainean egin zituen aipamenei buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egin (10. or.).

- Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Senatuaren aurrean terrorismoaren gainean egin zituen aipamenei buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).
- Autonomien egoeraren gaineko Senatuko eztabaida dela-ta, Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren jarrera eta jokabideei buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (12. or.).
- Saiek egin omen dituzten kalteak direla-ta bideratu diren erreklamazioei buruzko galdera, Martin Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- Haritzak markatu eta botatzeko irizpideei buruzko galdera, Martin Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- Foru Komunitatea nortasun bereziko komunitatea izateari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- Autonomien egoerari buruzko eztabaidan egindako hizkuntzaren erabilpenaren gaineko aipamenei buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- Autonomien egoerari buruzko eztabaidan aipatu zen eskubide historikoen dinamikotasunaren norainokoari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzekoa (18. or.).

E Saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Nafarroako Gobernua kontrapasan ehizan aritzeari buruz neurriak hartzera premiatzen duena

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an eginiko bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak aurkeztu duen Nafarroako Gobernua kontrapasan ehizan aritzeari buruz neurriak hartzera premiatzen duen mozioaren biderapena onestea, berau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Osoko Bilkuran bozka dadin xedatzea erabaki zuen. Erregelamenduko 193. artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte mozioa eztabaidatuko den egunaren aurreko eguneko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Andrés Basterra Layanak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, hurrengo mozioa aurkezten dio Osoko Bilkurari:

Egun, Estatuko legeriak -oinarrizkoa, arlo horri dagokionean- eta Nafarroakoak ez dute kontrapasan ehizan aritzeko aukerarik ematen.

Badirudi muga hori kendu egin behar dutela, izan ere, orain dela egun batzuk, Diputatuen Kongresuak onartu egin dute naturgune eta basa flora eta faunari buruzko 4/89 Legea aldatzeko proposamena, Senatuak berretsiko duena, eta kontrapasan ehizan aritzeko aukera emango du.

Hala gertatzen bada, Nafarroako Parlamentuak dagokion aldaketa egin ahal izango dio basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari

buruzko 2/1993 Foru Legeari, kontrapasan ehizan aritzea bidezko egiteko.

Beste alde batetik, autonomi elkarte bakoitzak justifikatu egin behar du era horretako ehizak espezieei kalterik egiten ez diela, aurretik egindako azterlan eta datuen arabera.

Era berean, eta kontuan harturik ohiko ehizaldiak duen iraupen laburra, jende asko eskatzen ari dena, bestalde, ezinbesteko da taxuz eta moldez lan egitea, nahi den hori 1998 urtean bidezko egiteko, gehiago itxaron gabe.

Hori horrela, mozio hau aurkezten dut, jarraitu beharreko prozedura osoa ezartzeko. Beraz, Osoko Bilkurari eskatzen diot hurrengo erabaki proposamena hartzea:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabaki hau jakinarazten zaionetik aurrera:

a) Kontrapasa deritzon ehiza-jarduera egin daitekeen ala ez justifikatzeko administrazio-espediente egokia osa eta buka dezan.

b) Kontrapasan ehizan aritzea bidezko dela ateratzen bada, Espainiako Gorteek egun izapidatzen ari den naturgune eta basa flora eta faunari buruzko 4/89 Legearen aldaketa, kontrapasako ehiza bidezko egitea nahi duena, onetsi eta hila-beteko epean, Parlamentuari aurkez diezaion basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru Legea aldatzeko lege proiektua, kontrapasan ehizan aritzea bidezko egiteko.

Iruñean, 1997ko martxoaren 17a

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana.

Mozioa, Nafarroako Gobernua Gobernuko Lehendakaria hautatzeko modua aldatzera premiatzen duena

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an eginiko bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztu duen Nafarroako Gobernua Gobernuko Lehendakaria hautatzeko modua aldatzera premiatzen duen mozioaren biderapena onestea, berau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Osoko Bilkuran bozka dadin xedatzea erabaki zuen. Erregelamenduko 193. artikulua ezartzen duenarekin bat etorriz, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte mozioa eztabaidatuko den egunaren aurreko eguneko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak, Erregelamenduak ezarritakoaren babespean, hurrengo mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Erabaki proposamena

Nafarroako Gortek Nafarroako Gobernua premiatzen dute Gobernuko Lehendakaria hautatzeko prozedura alda dezaten. Horretarako, lehenengo eta behin, "boto gehien atera duen alderdiaren aldeko prozedura automatikoa" deritzon LORAFNAko 29.3 artikulua kentzeari ekingo dio.

Hobekuntzari buruzko Legearen aldaketa hori egin eta gero, foru legez arautuko da Lehendakaria hautatzeko sistema, gure inguruko parlamentu-araubideek eta, bereziki, Autonomi Elkarrekin eskuarki erabiltzen duten sistemari egokitzeko irizpidea aintzat hartuz.

Iruñea, 1997ko martxoaren 21a

Bozeramalea: Félix M^a Taberna Monzón

F Sails:
GALDERAK

Tuteratik Ablitasa doan NA-3010 errepidea zabaltzeko obretan bizikletentzako bidea paratzeari buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeak Tuteratik Ablitasa doan NA-3010 errepidea zabaltzeko obretan bizikletentzako bidea paratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

"Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Bizikletentzako bidea sartzea proposatu zen Tuteratik Ablitasa doan NA-3010 errepidea zabaltzeko obren proiektuan, aurreikusita zeuden beste trazadura batzuekin bat egiteko asmoz.

Hori horrela, jakin nahi da:

Sartu al da aipatu bizikletentzako bidea obren proiektuan eta burutzean? Ezezkoan, zeintzuk dira arrazoiak?

Iruñean, 1997ko martxoaren 17a

Bozeramalea: Martín Landa Marco

Sunbillako Udalaren egoitza den eraikinaren egoerari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Sunbillako Udalaren egoitza den eraikinaren egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeko Foru Parlamen-

tariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

- Toki Administrazioiko Departamentuak ba al du Sunbillako Udaletxearen egoera tamalgarriaren berririk?

- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du loka-
lok duintzeko behar den inbertsioa?

- Lana burutzeko faseak eta egunak, eta baita horretarako behar den inbertsioa ere.

Iruñean, 1997ko martxoaren 17a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edukiak erregulatzeari buruzko galdera

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeko kide den Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edukiak erregulatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Fermín Ciáurriz Gómezek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Legea eraberritzeko Lege proiektua onartu ez denez, Kontseilariak aipatu zuen aipatu Lege proiektuak zekartzanak aldatzeari ekingo ziola Gobernuak, Nafarroarako erregulazio berekia eginez, gaur egunera arte haren berririk izan ez badugu ere.

Hori horrela, jakin nahi da:

a) Gobernuak ba al du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edukiak ekitaldi honetan arautzeko asmorik?

b) Proiekturen bat prestatu al du horri buruz?

c) Hala bada, noiz bidaliko zaio Parlamentuari?

d) Parlamentuko Taldeekin aurretik adosteko asmorik al du, zuzenean edota Zergak Eraberritzeko Batzordearen bidez?

Iruñean, 1997ko martxoaren 17a

Foru Parlamentaria: Fermín Ciáurriz Gómez

Ablitasko liburutegiko lanpostua betetzeari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Ablitasko liburutegiko lanpostua betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko 1997ko martxiaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengok ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

1996 urteko irailaz geroztik Ablitasko liburutegia, lanegun erdiko Liburuzain lanpostua betetzen zuen lan kontratupeko langile batek atenditzen zuena, liburuzainik gabe dago.

Egoera hau Hezkuntza eta Kultura Departamentuari jakinarazi zitzaion 96-10-14ko idazkiaren bitartez. Ondoren elkarrizketak izan ziren bai Tomas Yerro jaunarekin -Kultura Zuzendaria-, 96-11-20an, baita Kultur Kontseilaria den Marcotegui jaunarekin ere, azken hau 97-02-14an, Ablitasko Liburuzain lanpostuaren aferari irtenbidea bilatzeko asmoz.

Horregatik guztiarengatik honako galdera hau erantzuna ematea eskatzen dugu:

Zer neurri hartu da Ablitasko liburuzain lanpostu hutsa betetze aldera?

Noiz hornituko da lanpostu hori beteko duen pertsona, orain sei hilabete abandonaturik dagoen Abilitasko Liburutegiaren ardura hartuko duena?

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Udal ikastolak Nafarroako Gobernuaren sarera pasatzeari buruzko galdera

INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak udal ikastolak Nafarroako Gobernuaren sarera pasatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengok ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak, 1996ko urriaren 25ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen: Nafarroako Gobernuari eskatzea elkarrizketak hastea, Udal Ikastolako ikastetxeak Foru Administrazioaren hezkuntza sarera pasat-

zete, bilera-egunak eta epeak finkatuko zituen egutegi bat ere eskatuz, transferentzia edo pasatze hau 1997ko maiatzaren 31n bukatzeko.

1997ko urtarrilaren 31n Iruñeko alkateak idatziz (011-0002622-97 erregistroko zenbakia duen agiria) bidali zion eskaera Nafarroako Gobernuari, harremanak eta elkarrizketak edukitzeko Udal Ikastola Gobernuari transferitzeko.

Honi buruz ondorengo galdera hauen erantzuna jakin nahi da:

1.- Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko elkarrizketak hasi al dira, udal ikastola Foru Gobernuaren sarera transferitzeko? Ezezkoan, izendatu al ditu Nafarroako Gobernuak negoziazio horretan parte hartuko duten pertsonak?

2.- Zein da Nafarroako Gobernuak transferentzia horiek gertatzeari buruz duen irizpidea?

3.- Zeintzuk dira, Gobernuaren arabera, udal ikastolak Foru Administrazioaren ikastetxe publikoen sarearen menpe egoteko eman behar diren urrats jakin eta zehatzak?

Iruñean, 1997ko martxoaren 17a

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo

Europako Batasunak kutsaduraren alorrean onartu duen jarraibidea Nafarroan aplikatzeari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Europako Batasunak kutsaduraren alorrean onartu duen jarraibidea Nafarroan aplikatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Joan den azaroan, Europako Batasunak IPPC Jarraibide bat onartu zuen, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko neurriak biltzen dituena.

Kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko IPPC Jarraibidearen helburu nagusia industri jardueraren ondorioz izaten den kutsadurari aurre hartzea eta integratuki gutxiagotzea da. Jarraibide hau komunitatean aplikatu beharrekoa denez, honako hau jakin nahi da:

1.- Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak aipatu komunitateko jarraibidea betetzeko neurririk aplikatzeko, hazkunde ekonomikoa eta ekoizpen garbiaren bidezko ingurugiroaren zaintzea bateragarri izan ahal daitezen?

2.- Arau honen aplikatzea lau jarduketa-alorretan egin daiteke: ekoizkinak, prozesuak, industri sektoreak eta area geografikoak. Pentsatu al du Nafarroako Gobernuak horietako arlo jakin batean edo eta guztietan neurririk hartzea?

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

Barañaingo tentsio altuko lerroa kentzeari buruzko galdera

PEDRO URIZ LANZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Barañaingo tentsio altuko lerroa kentzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

1994ko abenduan, orduan Lurraldearen Antolamendu Kontseilariak jendaurrean esan zuen Barañaingo tentsio altuko lerroa kentzea bazela bere Departamentuaren lehentasunezko proiektuetariko bat.

1995eko azaroan Lurraldearen Antolamendu Departamentuak, orduko titularra Javier Del Castillo zelarik, REDESA enpresari esleitu zion aipatu lerroa kentzeko aurreproiektua.

Gaur den egunean, aipatu tentsio altuko lerroa kentzeko proiektua geldirik dago, Barañaingo bizi-lagunak, gelditze horren ondorioz, kexu daudelarik. Horregatik jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du egutegi jakin bat Barañain zeharkatzen duen tentsio altuko lerroa kentzeko? Baiezkoan esan bedi zein den.

2.- Ba al da kentzeko proiektua aurrera eramateko aurrekontu-kontusailik? Baiezkoan, zenbatekoa? Nahikoa al da lerroa erabat kentzeko?

3.- Ba al du Gobernuak proiektua finantzatzeko Europako fondorik eskatzeko asmorik?

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Foru Parlamentaria: Pedro Uriz Lanz

Osasunbideak ematen dituen zerbitzuetako itxoin zerrendari buruzko galdera

M^a ROSARIO VILLANUEVA ITURRALDE FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Osasunbideak ematen dituen zerbitzuetako itxoin zerrendari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengok ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Nafarroako Gobernuak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez, ba omen du hainbat atzerapen zerbitzuak ematerakoan. Horregatik jakin nahi da:

1.- Zein da “lehen kontsultan” dagoen itxoinzerrenda, espezialitateen arabera?

2.- Zein da “berrikuspenean” dagoen itxoinzerrenda, espezialitateen arabera?

3.- Zein da medikuak eskatzen dituen lehen diagnostikoen emaitzak jasotzeko dagoen gehieneko eta gutxieneko denbora?

4.- Zein da historial klinikoak jasotzeko gehieneko eta gutxieneko itxoin-denbora?

5.- Zein da medikuaren txostena idatzi, berau transkribatu eta gaisoari bidaltzen zaion arte igarotzen den gehieneko eta gutxieneko denbora?

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Foru Parlamentaria: M^a Rosario Villanueva Iturralde

Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Senatuaren aurrean Itoizko urtegiaren gainean egin zituen aipamenei buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko 24an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Senatuaren aurrean Itoizko urtegiaren gainean egin zituen aipamenei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Senatuaren aurrean Nafarroako Gobernuaren Lehendakariak lankidetzat hatsapena aipatu zue-nean, hatsapen horren barruan sartu zuen “Itoizko urtegia”, eta urtegi honen aldeko jarrera publikoa eskatu zion Estatuako Gobernuko Lehendakariari.

Diskurtso idatziaren 9. orrian, Nafarroako Gobernuak pasatu duenaren arabera, ez zen esaten gero Lehendakari jaunak Senatuaren aurrean justifikazioari buruz baieztatu zuen guztia: “lehen-goiz eta behin, Espainiak eta baita gure komunitateak ere duen ur-defizit larriari aurre egitea ahalezkoa egingo duelako. Bigarrenik Nafarroako garapena eta baita Espainiako beste hainbat lurretako garapena erraztuko duelako”. Horrelaxe jaso zuten komunikabideek, eta Senatuaren bilkura-egunkarian baieztatzea baizik ez da falta.

Ikus daiteke diferentzia oso handia dela. Lehen testuan esaten zen bitartean obra hau “gure Komunitatearen garapenerako obra hau ikur bat dela”, ahoz jaulki ziren hitzetan esaten da “Espainiak eta baita gure komunitateak ere duen ur-defizit larriari aurre egitea ahalezkoa egingo duelako”.

Honek esan nahi du diskurtsoa aldatu dela, obra hau beti justifikatu baita Nafarroako ur behar zuzen edo zeharkakoen arabera, hiri-sistemak, industriak eta nekazaritzak zituzten beharren arabera, hain zuzen ere, eta beti ukatu baita bere

funtzio nagusia erregulatze hutsa denik, Aragoi eta Katalunia bezalako beste eskualde batzuk dituzten ur-defizitei, aurre egiteko denik, hain zuzen, aurre egite hau ibaiaren emaria erregulatzearen ondorio zuzena izango litzatekeelarik, erregulatze honi esker Ebro ibai arroko sare hidraulikoari ura nahi den uanean pasatzea ahalezko bihurtuko zuena.

Idatzirik zegoen testuan, populazio guneak, ureztalurrak eta abar hornitzeko beharrak gero eta handiagoak zirela esanez obra justifikatzeaz aparte, beste justifikatzeko arrazoi bat ematen zen, hots “obra publikoen alorrean botere publikoaren zilegitasuna adieraztea, bortxakeriazaleen ukoaren aurrean”.

Lehendakariari eskatu zitzaion “bere aldekotararen publikoa obra hau Estatuako Administrazioarekin era koordinatuan bukatzeko, beraz bukatzeak Nafarroako eta Espainiako biztanle guztien ongizatean oihartzuna izan dezan”.

Nafarroako Gobernuko Lehendakariak modu honetan mintzatzeak zalantzak sorraratzen ditu, eta zalantza hauek argitu behar dira; izan ere, Estatuari laguntza eskatze hori etengabea da, baina laguntza hau ez da inondik ageri, Aznar jauna protagonista izan duten uneko itxurazko eta hauteskunde garaietako laguntzez haratago. Horregatik ondorengo galderak idatziz erantzun daitezela eskatzen da:

1.- Zergatik Itoiz justifikatzeko Senatuaren aurrean aurkeztu den argudioa oinarritu da Espainiak pairatzen dituen ur-defizitetan, Nafarroako gizarteari behin eta berriz transmititzen zaion justifikazioa aldatuz, orain arte etengabe esan delarik urtegi ura Nafarroako populazioak, industriak, ureztalurrak hornitzeko eta energia elektrikoa sortzeko erabiliko zela?

2. Nafarroako Gobernuak uste al du Estatuak pairatzen duen ur-defizita dela obra gaur den egunean justifikatzen duen arrazoia, baita obra publikoaren alorrean botere publikoaren zilegitasuna adieraztea, bortxakeriazaleen ukoaren aurrean ere?

3. Itoiz eta Nafarroako Ubidearen defentsa eta egitea Gobernuak bere ospe ona aurka daudenen aurrean gorde behar duelako oinarritzen da, Lehendakariak esaten duen bezala, edo Nafarroarentzat ekarriko duen onuran oinarritu behar da?

4. Hartu al du Nafarroako Gobernuak inolako konpromezurik Madrilgo Gobernuarekin edo eta Partido Popularrarekin obrei justifikazio berria aurkitzeko, edo eta urtegian sartzen den emaria beste eskualdeei ere emateko, azken hauek euren ur-defizitak konpon daitezzen?

5. Zeintzuk dira konpromezu hauek, eta noraino iristen dira, eta zenbateko emaria gordeko da konpromezu hauei aurre egiteko, baldin eta horrelako konpromezurik badago?

6. Bere hitz beti ere on horietaz haratago, hartu al du Gobernuak Lehendakariak inolako

konpromezu zehatzik urtegiak falta duen legeestalkiak sorrarazten dituen arazo juridikoei irtenbidea bilatzeko, eta Ubidea egiteko behar diren baliabide ekonomikoak lortzeko, ubide horrek urezta litzakeen eremuak Ureztalurren Planean sartzeko, ureztalur berrien finantzazioan parte hartzeko eta Nafarroak ura profitatuko duela bermatzeko?

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Nafarroako Gobernuak Lehendakariak Senatuaren aurrean terrorismoaren gainean egin zituen aipamenei buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak Lehendakariak Senatuaren aurrean terrorismoaren gainean egin zituen aipamenei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Nafarroako Gobernuak Lehendakariak Senatuaren aurrean egin zuen mintzaldian terrorismoaren aurkako borrokaz aipamen bat egin zuen, “lagapenak eta alderdientzako dibidenduak ez dituela onartzen” baieztatuz.

Aipatu zuen, baita ere, “gizakiaren arteko elkarbizitzaren zoko guztiak oxigenatu behar direla. Bizitza politikoan Espainiarentzat traspasatzen den horren zentzua berreskuratu eta berezi behar dela hori eta alderdientzat, euren hautes-

kunde-helburu zilegien arabera, garrantziko edo ez hain garrantziko denaren artean”.

Azkenik haxe adierazi zuen: “bortxakeriaren arazoari irtenbidea bilatzeko era ezin txukunago eta errotikoa badago, eta hori da, hain zuzen, txuria eta beltzaren artean aukeratzea, erdiko kolorerik onartu gabe. Ezin daiteke inolaz ere tolerantea izan intoleranteak direnekin”.

Erretolika bada halako egoera batean botatzen den mintzaldi baten zati funtsezkoa, eta maila horretako xehetasun batzuk ezagutu behar dira hitz horien benetako edukiaz jabetuko bagara, eta horregatik ondorengo galdera hauen erantzunak eskatzen ditugu:

1.- Uste al du Nafarroako Gobernuaren Lehendakariak terrorismoa alderdiek erabiltzea, eta euren hauteskunde-helburuekin erabiltzea, Espainiako bizitza politikoetik desagertu behar dela? Uste honek eramango al du gairik oraintxetik aurrera Gobernuak eta berorri eusten dion alderdiak bortxakeriaren gain erabiltzen duen estrategia, adierazten duena bere iritziz hautesle kontserbadoreen oso gustukoak diren naurri polizial eta errepresiboek baizik ez dutela balio arazoari irtenbidea bilatzeko?

2.- Gobernuaren Lehendakariaren arabera, “txuria ala beltza” aukeratzean datza bortxakeriaren arazoari ematen ahal zaion errotiko irtenbidea? Noraino iristen den eta ezagutzen ez den aukera baten eskuetan jartzean arazoaren irtenbidea, bi koloreetako zeinek duen bere baitan irten-

bide egokia, denek bere alde egin dezaten, esaten ez dela, ez al da arbitrista bati dagokion irtenbideaz ari?

3.- Baldin eta, esaten den bezala, "ezin daiteke inolaz ere tolerantea izan intoleranteak direnekin", esan nahi du horrek izaten ahal dela inolaz tolerantea intoleranteekin? Ez al da intolerante izatea aniztasuna bere osotasunean ez onartzea, jarrera

politikoen erlatibotasuna eta gure balorazioekin bat ez datozenen jarrerak ez onartzea, gure jarra bestek errespetatzen dituzela eskatzea guk besterenak onartzen ez ditugun bitartean, intoleranteak besteak direla aitzakia eta deskalifikazioarekin?

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Autonomien egoeraren gaineko Senatuko eztabaida dela-ta, Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren jarrera eta jokabideei buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Autonomien egoeraren gaineko Senatuko eztabaida dela-ta, Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren jarrera eta jokabideei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

"Nafarroako Demokratikoa Elkargunea" Parlamentari Taldeko kidea den Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoak ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Jakin ahal izan da ezen Autonomien Egoerari buruzko eztabaida egin baino lehen Gobernuari eusten dion Partido Popularrak hainbat bilera egin dituela, eta bilera horietan argudio eta jarraibide politikoak eman dizkiela alderdi horretako lehendakariari eztabaida autonomikoa leuntzeko, eta Gobernu egoera zailetan ez jartzeko, diskurtsoei maila instituzionala eskatzen zitzaizela. Horretarako joan den martxoaren 4an bilera bat egin zen Administrazio Publikoetako Ministroarekin estrategia ezartzeko. Beste hainbat lan-bilera ere egin zen Ministro horrekin.

Senatuaren erreformaz, zehazki esanda, honako hau iradokitzen zen: "ahalik eta orokorren tratatu, zehaztasun handietan inola ere sartu

gabe eta jarrera finkoak hartu gabe, jarrera finkoek konpromezua baitakarte". Halabe, kontu polemikoak saihestea gomendatu zen, "mintzaldiaren tonuak eta tratamenduak ahalik eta itxura instituzional handien eduki behar dutelarik". Era berean, norberaren berezitasunen gaiari ez heltzea proposatu zen: "afera hau oso polemikoa denez, gomendagarriena litzateke horri buruzko inolako aipamenik ez egitea"

Honek guztiak azaltzen du eztabaidak eduki zuen izaera erretorikoa, aspergarria eta hutsala, lortu nahi zena baitzen Autonomietatik Gobernuaren jardunari inolako kritikarik ez izatea, Autonomiak beti ere Gobernuaren menpe jarriz, Estatuan egun indarrean dauden egiturak hierarkian oinarrituko bailiran, sistema zentralizatueta gertatzen den bezala. Begi bistakoa da sistema zentralistaren zentralizazio politiko-administratiboa kendu dela eta eskualdeetan deszentralizaturiko sistema barruko alderdiaren arabera zentralizazio politikoa jarri dela. Gobernuan dagoen alderdiak alderdikieriaz jokatzeko nahiago izan du, alderdia babestea nahiago izan duelarik Estatuaren ereduaren aurrerapena ahalezko egingo zuen eztabaida instituzionalari ekitea baino, eta horregatik ez dira eztabaida demokratikoan jarri sistemaren hutsak eta kolektibitateen eskaerak.

Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren diskurtsoak alderdikieriaz kutsaturiko proposamen hauek guztiak bildi ditu bere baitara. Halako moldeez non diskurtsoa erretorikoa eta zehazgabea izan baita, Nafarroaren berezitasunen aldeko defentsan inolako indarrik edo eta kemenik gabea. Diskurtsoari Gobernuarekiko kidetasuna zerion, bere politika autonomikoa laudatzen zuen, eta ez zuen inolako liskarrik mahaigaineratzen Nafarroa ukitzen duten aferei buruz. Alderdiaren

ikuspegitik balorazioa ona izan daiteke, aurrez emandako argibideak begiratu dituen ber, eta hori, menpekotasunezko harremanetan, meritua izan daiteke. Nafarroaren eta bere autogobernuaren ikuspegitik, ordea, balorazioa txarra baizik ezin da izan, bere eduki-faltarengatik, eta, batez ere, Nafarroako gizartearen gehiengoaren eskaerak eta jarrerak ez dituelako transmititu. Berriro ere Nafarroako Gobernuak nahasi ditu bere alderdi mailako jarrerak eta interes orokorrak, eta ez du onartzen Nafarroako Parlamentuan gutxiengo dela.

Horregatik jakin nahi da zeintzuk diren Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren jarrerak eta jokabideak ondoren galdetzen direnei buruz:

1.- Nafarroako Gobernuko Lehendakariak parte hartu al du Partido Popularraren egoitzan joan den martxoaren 4an egin zen bileran, edo eta Autonomien Egoerari buruzko Senatuko eztabaida prestatzeko balio behar zuen beste edozeinetan?

2.- Nafarroako Gobernuko Lehendakariak erabili al ditu Partido Popularraren argudio politikoak Autonomien Egoerari buruzko Senatuko eztabaidan botatako mintzaldia prestatzeko?

3.- Partido Popularrak edo Administrazio Publikoetako Ministerioak eman al dio Nafarroako

Gobernuko Lehendakariari proposamenik, iradokizunik edo argudio politikorik Autonomien Egoerari buruzko eztabaidan bota behar zuen mintzaldia prestatzeko?

4.- Mintzaldiaren eduki txepel eta xuria, harreman zuzenean al dago Nafarroako Gobernuak eta beroni eusten dion alderdiak Estatuko Gobernuarekiko eta Partido Popularrarekiko duen menpekotasunarekin?

5.- Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Madrilgo Gobernuaren politika autonomikoarekiko agertu duen oniritzia, Gobernu honekin garapen autonomikoari buruz dituen helburu politiko mailako kidetasunean eta erabateko irizkidetasunean oinarritzen al da?

6.- Uste al du Foru Komunitateko Lehendakariari dagokion papera Madrilgo Gobernuko lehendakariaren lurrindariarena egitea dela? Ez al da beharrezkoa gure autogobernuaren egiazko arazoak mahaigaineratzea, agerian utziz Nafarroak Estatu autonomikoaren barruan duen txertaketa komunitate historiko bati dagokiona dela, eta ez Konstituzioko 143. artikuluko komunitate bati dagokiona?

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Saiek egin omen dituzten kalteak direla-ta bideratu diren erreklamazioei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko kide den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak saiek egin omen dituzten kalteak direla-ta bideratu diren erreklamazioei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Aurtengo otsailaren 12an, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak egin zuen agerraldiaren bitartez jakin ahal izan genuen saiek egindako balizko kalteen ondoriozko erreklamazioak eginak zirela, eta baita hainbat abeltzainei ordainduak ere. Era berean, Parlamentuari jakinarazi zion lehenengo ikerlana egin zegoela eta beste bat agindua zegoela, epe luze-

agoan ondorio behin betikoagoak atera ahal izateko.

Hori horrela, jakin nahi da:

1. Saiek bizidun aziendari egindako balizko erasoengatik erreklamaziorik egiten jarraitu ote duten. Hala bada, zenbat eta zeintzuk onartu eta ordaindu diren gaur egunera arte. (Zerrenda, izen eta guzti, erreklamazioaren eta ordainketarako baimenaren eguna ere).

2. Gaur arte ezagutzen diren azterketa zientifikoetatik inolaz ere ez da ateratzen saiek bizidunei inongo erasorik egiteko aukera, eta, jakina, zentzugabekeriatzat jotzen dute Nafarroan erabiltzen ari diren aukera, alegia, saiek egin izana oraintsu

salatu eta ordaindu diren kalteak. Antzeko gertaeretan oinarritzen diren erreklamazioei jaramon egiten jarraitzeko asmorik al dago?

3. Behin betiko azterlanak bukatu eta horien ondorioak bat baldin badatoz saien portaerari buruz gaur egunera arte dakigunarekin, hau da, bizidunei erasotzen ez dietela, aurreikusita al dago klausularen bat kontzeptu horretan ordaindutako kalteordainak itzultzeko, azterlanen ondorioa aipatu duguna balitz, ordainketa guztiz bidegabekoa bailitzateke?

Iruñean, 1997ko martxoaren 20a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Haritzak markatu eta botatzeko irizpideei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko kide den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak haritzak markatu eta botatzeko irizpideei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Oraintsu izan dut kezkarri deritzedan gertaeren berri, eta ez bakarrik behin gertatzeagatik, bai-

zik eta, esan didatenaren arabera, eskuarki gertatzen omen direlako.

Sutako egurra botatzeko ohiko markaketaren barruan, 200 urtetik gorako haritzak ari dira markatzen. Hain zuzen ere, azkeneko gertaera Galdeanoko mendian jazo da, 200 eta 300 urte bitarteko haritzak sartu baitira sutako egurra egiteko.

Hori horrela, jakin nahi da:

1. Nork ematen duen baimena, eta zer irizpideen arabera, zuhaitz horiek markatu eta botatzeko, jakinik, gainera, auzoen beharrianak asetzeko horrelakorik behar ez dela, zuhaitz horiek bota gabe ere nahikoa egur badelako.

2. Nork ezarri behar dituen zuhaitzak botatzeko irizpideak, baso zaindaria bakarrik aurkitu ez dadin auzoen aurrean arrazoiak ematerakoan, edo batzuetan, haien aurka ere.

3. Zer neurri hartuko den antzekorik gerta ez dadin.

Iruñean, 1997ko martxoaren 20a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Foru Komunitatea nortasun bereziko komunitatesa izateari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeko kidea den Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Foru Komunitatea nortasun bereziko komunitatea izateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarrikoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak Lehendakariak, Senatuan 97/03/12an egin zuen mintzaldian, "nortasun bereiztua" duen Foru Komunitatea dela esan zuen Nafarroaz. "Komunitate bereiztua" zela esan zuen berriro eta haren "Komunitate bereiztuaren egoera" aipatu berriro ere. Autonomi Elkarte bakoitzak bere berezitasuna edo nortasuna, beste Autonomi Elkarteetatik bereizten duena, duen neurrian,

kasuan kasuko Estatutuak gainerako Elkarrekin araubide bereiztua ematen baitie, Espainiako Konstituzioa den oinarri amankomunetik abiatu ere, antzeko izaerako autogobernu-erakundeak izanik ere, nortasuna herrialde bati eta erakunde eta eskumen batzuei dagokien egitearen ondorioa da.

Foru Komunitatearen izaera "bereiztua" behin eta berriro aipatzean, badirudi hark bakarrik duela berezitasunik, gainerako Autonomi Elkarrekin ez bere nortasuna ez baleukate bezala. Horregatik interesgarria jotzen da jakitea zer adiera eta norainoko ematen dizkien Nafarroako Gobernuak Lehendakariak hitz haiei. Horretarako, galdera hauek egiten dira:

1.- Uste du Nafarroako Komunitateko Lehendakariak Komunitate bereiztuaren egoera Nafarroako Foru Komunitateari ez besteri dagokiola?

2.- Estatua osatzen duten Autonomi Elkarrekin ez ote dira ezberdinak eta bereziak elkarrekin?

3.- Ez ote dago Espainiako Estatua histori, kultur, ekonomi eta geografi osagai anitzengatik bereziak diren nazionalitate eta erregioez osaturik? Ez ote dute horiek autonomia lortu kasuan kasuko estatutuaren bidez, besteetatik bereiztea aitortzen dien bidez?

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Autonomien egoerari buruzko eztabaidan egindako hizkuntzaren erabilpenaren gaineko aipamenei buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeko kidea den Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Autonomien egoerari buruzko eztabaidan egindako hizkuntzaren erabilpenaren gaineko aipamenei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko

Foru Parlamentari jaunak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarrikoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak Lehendakariak Senatuan egin zuen mintzaldian hauxe esan zuen: "... nahi nuke adierazi, hizkuntza, kultur osagai den aldetik, ezin dela eta ez dela arma politiko gisa erabili behar, ez eta egintza bereiztuen osagai berezi edo bereizgarri gisa ere, horiek, konstituzio batasuna muga delarik, Autonomien Espainian elkarbizitzan dira eta".

Estatuak Nafarroari zor dion errespetuaren barruan "kultura" zegoela ere esan zuen, "eta hori osatzen duen euskara, berezkoa dena".

Halaber, "gure helburua espainol eta Espainiako herri guztiak haien kultura, ohitura, hizkuntza eta erakundeak erabiltzean babestea besterik ez dela" gaineratu zuen.

Mintzaldian erabili zuen mintzairaren erretorikoak oso zaila egiten du haren adierazpen batzuk ulertzea, argitu behar direlarik, erabiliriko kontzeptuen nahasiaren nahasiz. Horregatik nahi da afera hauek argi daitezen:

1.- Zer esan nahi du esaldi honek: "hizkuntza ezin da eta ez da erabili behar egintza bereiztuen osagai berezi edo bereizgarri gisa"?

2.- Esan nahi ote du begi txarrez ikusten duela herri edo nazio batek bere hizkuntza bere egintza bereiztuaren osagai itxuratzailetzat jo dezan?

3.- Zer arrazoi daude hizkuntza bat herri baten osagai bereizgarria izan ez dadin, haren kultura osatzen dutenatariko bat bada, berezia dela edo ez dela?

4.- Zein dira, haren ustez, "konstituzio batasunaren barrutik" onar daitezkeen osagaiak?

5.- Zer konstituzio batasunez ari da eta zein dira haren norainokoak eta haren edukia?

6.- Haren ustez, egintza bereiztuek aurka egiten diote konstituzio batasunari?

7.- Non, noiz, nola eta norik zehatu ditu "konstituzio batasun" horrekin bat daitezkeen egintza bereiztuak?

8.- Zer da hizkuntza eta kultura arma politiko gisa erabiltzea?

9.- Hizkuntza hezkuntzan eta gizarteko bizitzan egon dadin sustatzeko neurriak hartzea eta gizartearen eskariak betetzea arma politikoak ote dira?

10.- Erabilpen politikoa ote da euskarari, Lehendakariak aitortu bezala, Nafarroaren kultur nortasunaren osagai denari, behar duen babesa ematea, nafar guztiek beren kultuaren, beren ohituren, beren erakunde, gizarteko bizitza eta harremanen berezkoa den aldetik erabil ahal dezaten.

11.- Eremu ez euskalduneko euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eskaera ez betetzea, herriak hala eskatuagatik ere, erabilpen politikoa da, indarra duen Euskarari buruzko Foru Legean aipaturik ez egotea delarik aitzakia, haren aldaketa, gizarteak Nafarroako kultur ondarea den hizkuntza jakin eta horretan hezitzeko duen eskaera bete ahal dadin, ukatzen delarik?

Iruñea, 1997ko martxoaren 18a

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Autonomien egoerari buruzko eztabaidan aipatu zen eskubide historikoen dinamikotasunaren norainokoari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak autonomien egoerari buruzko eztabaidan aipatu zen eskubide historikoen dinamikotasunaren norainokoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak Lehendakariak, Senatuen aurrean egindako hitzaldian, esan zuen, Espainiako Estatuaren barruko harreman bertikalei buruz, Nafarroari eskubide historikoak bermatu behar dizkiotela, eskumen eta erakunde arloan duen autonomiaren erakusgarri gisa, "konstituzio batasunaren mugarekin, kontzeptu hori era dinamikoan ulertuz, eta ez higagaitzatzat hartuz...". Ondoren, aipatu dinamikotasuna lotu egin zuen eskumeneren mailarik altuenarekin, Hitzarmen Ekonomikoaren sistema aintzat hartzearekin, zuzenbide berezia eta "euskara berezko duen bertako kultura" errespetetzearekin. Mugaz gaindiko harremanak onartzea ere aipatu zuen, "Pirinioaz bestaldekoekin ohiko auzo-harreman onei eusteko bide" bezala.

Ez da zehazten eskubide historikoen dinamikotasuna zertan datzan, alegia, Estatuari egiten zaion eskari gisa agertzen den, Senatuko aipatu eztabaidan halako aipu bat egiteak horretarako bide ematen badu ere. Hori horrela, jakin nahi da aitopen erretoriko hutsa besterik ez den, hitzaldiko beste hainbeste bezala, edota eskubide historikoak Foru Komunitateari bere burua gobernatzeko aukera handiagoa emango dioten zerbait bezala ikusten diren, "Konstituzio batasuna"ri eskatu baitzaio dinamikotasuna, higagaiztasuna baztertuz. Beraz, hurrengo galderei erantzuna ematea eskatzen da:

1.- Zein da Konstituzio-batasunaren dinamikotasuna, noraino heltzen da eta nola eragin diezaike eskubide historikoei?

2.- Zein da Konstituzio batasunaren kontzeptu dinamikoarekin uztar daitekeen eskumen-mailarik altuena, Nafarroari dagokionez, hitzaldian azaldu-takoa zehazteko?

3.- Zer dinamikotasun dago "Hitzarmen Ekonomikoaren ohiko sistema aintzat hartzea"? Horren edukian ote dago, Nafarroako zerga-autonomiak askatasun handiagoa izateko bide ematen duela, eta Estatuak errespetatu egingo duela bermatzen, aipatu autonomiari uko edo eraso egiteko erabakirik eman gabe?

4.- Estatuak Gobernuak laidorik egin al dio zuzenbide bereziari, kulturari eta euskarari, harreman bertikaletan zor zaien errespetua eskatzeko moduan?

5.- Estatuak jarduketaren bat egin al du Nafarroari ohiko harremanak galarazteko Pirinioaren iparraldean diren eskualde, komunitate edo udal auzoekin, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko "harreman bertikalen" esparruan Estatuaren errekonozimendua eskatzeko modukorik?

6.- Halakorik gertatu bada, egindako eskaritik ateratzen den bezala, zertan datza? Zergatik ezkutatu zaio iritzi publikoari? Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak autonomiei buruzko eztabaidan eskaria egin baino lehen?

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Nafarroako Kontuen Ganbarako Lehendakariak, 1997ko martxoaren 17an,

ERABAKI DU:

Lehena: Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia onartzea. Deialdia ondoren ematen diren oinarriek zuzenduko dute.

Bigarrena: Deialdia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen xedatzea.

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Deialdi honen oinarriak ondoko hauek izanen dira:

1. oinarria.- Arau orokorrak

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Kontuen Ganbarako kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bitartez betetzea, txanda askean. Lanpostuak ezinbesteko du euskaraz jakitea, horixe egiaztatu beharko delarik lanpostua eskuratu ahal izateko.

1.2. Lanpostuen kopurua, hala bada, gehitu ahal izanen da, Epaimahaiak onartuen zerrenda argitaratzen duen egunean betegabe dauden lanpostu hutsen kopurura iritsi arte. Probak gainditu arren, plazarik lortu ez duten izangaiak aldi baterako kontratatu ahal izango dira, ateratako puntuazioaren arabera, indarreko legeriak aurreikusitako kasuetan.

1.3. Izendapenak Nafarroako Kontuen Ganbarako funtzionario izaera emango dio izendatuari, ondorio guztietarako, jabetza hartzearen egunetik hasita eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legea, Kontuen Ganbararen Antolaketa Erregelamendua eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aplikatuko zaizkio, aipatu Legeak ezartzen duenaren arabera.

1.4. Egungo lanpostuen sailkapeneko B mailari dagozkion ordainketak izango ditu lanpostuak, gehi Kontuen Ganbarako plantila organikoak kontu-ikuskaritza teknikari lanpostuarendako aurreikusten dituen ordainketa osagarriak.

1.5. Graduari, aintzinasunari eta familia laguntzari dagozkien ordainketa oinarritzakoak eta osagarriak jasotzeko eskubidea ere izango du, orobat indarreko legeria aplikatuz egoki dakizkiokeen gainerako guztiak.

1.6. Kontu-ikuskaritza teknikariek, Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legeak eta Kontuen Ganbararen Antolaketa Erregelamendua aurreikusitako zereginak bete beharko dituzte. Zeregin horiek disponibilitate osoarekin eta erabateko dedikazioz beteko dira, eta aipatu teknikariak ezin izango dira irabazizko beste jarduerarekin batzuetan aritu, ez alor publikoan, ezta pribatuan ere, irakaskuntza eta norbere edo familiaren ondarea administratzea salbu.

1.7. Lanpostu honetarako izendatuak kontu-ikuskaritza teknikarien zereginak bete beharko ditu, euskaraz burutzen direnean edota haiek betetzeko euskaraz jakin behar denean.

1.8. Izendatua izan den funtzionarioa Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatuko da eta alta emango zaio, aipatu araubideak aurrekusiaren babesean. Salbuespena: eskubide pasiboan eta osasun eta gizarte laguntzaren erregimenean, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioen zerbitzuko langileen Estatutuak eta gainerako

xedapen osagarriek aipatzen duten hartan, afiliaturik dagoen funtzionarioak aukeratu ahalko du bertan segitu edo Gizarte Segurantzian afiliatu.

2. oinarria.- Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

2.1. Oposizio-lehiaketan parte hartzeko, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Nazionalitate espainiarra edo Europako Batasuneko kide den beste edozeinena izatea eta adinez nagusia izatea.

b) Hurrengo tituluetako bat izatea, gutxienez: unibertsitate diplomatua, merkataritza irakaslea, injineru edo arkitekto teknikoa, edo ofizialki balio-kidetzat jotako titulazioak, edota ofizialki onetsitako fakultate edo goi mailako eskola teknikoko hiru ikasturteko ikasketa guztiak gaindituak izatea.

c) Hizkuntza Eskola Ofizialak emandako euskararen gaitasun agiria-goi zikloa edo ofizialki balio-kidetzat onetsitako titulazioa izatea, edota hizkuntza-maila nahikoa duela egiaztatzen duen proba gainditzea.

d) Dagozkion eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko zein psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoak betetzeko desgaitu edo gabetua ez egotea eta Administrazio Publikoaren zerbitzutik berezia ez izatea.

2.2. Deialdi honetako 10. oinarriak ezarri epe eta moduan egiaztatu beharko dira aurreko baldintzak, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean betetzen dituztela ulertuko da, hautapen prozedura osoan zehar izendapena bitarte haien jabe izan beharko dutelarik.

3. oinarria.- Eskaerak eta eskubide-ordainketak.

3.1. Oposizio-lehiaketan parte hartu nahi dutenek, eskabidea egin beharko diote Nafarroako Kontuen Ganbarako Lehendakariari, eraskinean agertzen den ereduaren arabera, eta lanegun eta lanorduetan aurkeztu aipatu erakundearen Erregistro Orokorrean (Ansoleaga kalea, 10, Iruñea), 9etatik 14etara, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hogeita hamar egun naturaleko epearen barruan. Ondoko hauek azaldu beharko dituzte:

a) Izen-deiturak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, eta deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak

betetzen dituztela aitortu, beti ere eskabideak aurkezteko epea bukatzen den eguna kontuan hartuta.

b) Hala bada, deialdi honetako 10. oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko konpromezua, izendapen-proposamena argitaratu eta hurrengo hogeitun egun naturalen barruan.

c) Horretarako izendatuz gero, praktiketako kontu-ikuskaritza teknikari lanpostuaz jabetzeko konpromezua, behin-behineko izendapena jakinarazi eta hurrengo hogeita hamar egun naturaleko epearen barruan.

3.2. Eskabidearekin batera, hurrengoak aurkeztuko dira:

– Alegatutako merezimenduen zerrenda, l. Eraskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta berauen egiaztatutakoak.

– 1.000 pezeta jotzen duten azterketa-eskubideak ordaindu izanaren egiaztatutakoak. Ordainketa Nafarroako Aurrezki Kutxaren hurrengo kontuan egiten da: 2054.0000.42.110008.954.3.

3.3. Pertsona minusbaliatuek ariketak egiteko denbora eta baliabide aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatu ahalko dituzte, hala behar izanez gero.

3.4. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da. Izangairen batek ezinezko badu alegatutako merezimenduen egiaztatutako guztiak ezarritako egunerako arkeztu, hogeitun egun naturaleko epea izango du bere espedientea osatzeko, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik hasita.

3.5. Eskabideetan antzeman daitezkeen egitezko hutsak edonoiz zuzendu ahalko dira, ofizioz edo interesatuaren eskariz.

4. oinarria.- Izangaiei onarpena.

4.1. Hirugarren oinarriak ezarri duen eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Kontuen Ganbarako Lehendakariak izangai onartu eta baztertuen behin-behineko izenen zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko.

4.2. Interesatuek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Kontuen Ganbarako Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5. oinarria.- Epaimahai kalifikatzailearen osaketa, eraketa eta jarduketa.

5.1. Ondoko kide hauek osatuko dute oposizio-lehiaketa ebatzi behar duen Epaimahaia :

Mahaiburua: Francisco Javier Tuñón San Martín jauna, Nafarroako Kontuen Ganbarako lehen-dakaria.

Ordezkoa: Luis Ordoqui Urdaci jauna, Nafarroako Kontuen Ganbarako idazkari nagusia.

Mahaikideak:

– Ignacio Cabeza del Salvador, Nafarroako Kontuen Ganbarako kontu-ikuskatzailea.

Ordezkoa: Francisco Javier Sesma Masa, Nafarroako Kontuen Ganbarako kontu-ikuskatzailea.

– Heliodoro Robleda Cabezas jauna, Nafarroako Unibertsitate Publikoko katedraduna, Ekonomia Finantzieroa eta Kontabilitate arloan.

– María Lostau Unzu andrea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle titularra, Ekonomia Finantzieroa eta Kontabilitate arloan.

– M^a Pilar Sola Mateos andrea, Kontuen Ganbarako kontu-ikuskaritzako teknikaria, Langileen Batzarrak izendatua.

Ordezkoa: Lourdes Irigoyen Olaiz andrea, Kontuen Ganbarako kontu-ikuskaritzako teknikaria, Langileen Batzarrak izendatua.

– Miguel Esparza Oroz jauna, Nafarroako Kontuen Ganbarako legelaria.

Ordezkoa: Jesús Muruzabal Lerga jauna, Nafarroako Kontuen Ganbarako kontu-ikuskaria.

5.2. Epaimahaikideek ez dute parterik hartuko jardunbidean, eta Kontuen Ganbarako Lehendakariari jakinaraziko diote, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoa eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko Legeko 28. artikulua aipatzen dituenak gertatzen direnean.

Izangaiek epaimahaikideak arbuia ditzakete Administrazio Publikoen Araubide Juridikoa eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko Legeko 29. artikulua aipatzen dituenak gertatzen direnean.

5.3. Epaimahaia hautapen probak hasi baino lehen eratu beharko da.

Epaimahaia eratzeko kideen gehiengo osoak beharko du bertan, eta beti ere, mahaiburuak eta idazkariak bertan izan beharko dute.

5.4. Jardun ahal izateko, kideen gehiengo osoak bertan egon beharko du. Erabakiak botoen

gehiengoz hartuko dira, mahaiburuak kalitatezko botoa erabili ahal izanzen duelarik.

5.5. Ariketak baloratzeko, ahobatekotasunik ez bada, epaimahaikide bakoitzaren zati-kalifikazioak batuko dira, eta epaimahaikideen kopuruaz zatitu. Epaimahaia proba batzuetarako edo guztietarako aholkulari espezialistei dei egin ahalko die.

5.6. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, Epaimahaia ebatziko ditu, apezlazorik gabe.

6. oinarria.- Oposizio-lehiaketaren garapena.

6.1. Bi aldi ezberdin izango ditu oposizio-lehiaketak: lehiaketa, lehena, eta oposizioa, bigarrena.

6.2. Lehiaketaren baremoa deialdi honen I. eraskinean agertzen dena izango da.

6.3. Oposizioaldiko ariketa teorikoa deialdi honen II. eraskinean agertzen diren gaiei buruzkoa izango da.

7. oinarria.- Merezimenduen lehiaketaren hasiera, garapena eta kalifikazioa.

7.1. I. Eraskinean azaldu baremoari jarraikiz, izangai bakoitzari dagokion puntuazioa emanez egingo da lehiaketaldiaren kalifikazioa. Gehienez 20 puntu eman ahal izango dira, eta lehiaketa ez da baztertzaila izango.

Baremoaren aplikazioak eskatzen duen informazio guztia izan beharko dute egiaztagiriek. Ez da egiaztatu gabeko merezimendurik zenbatuko.

7.2. Nafarroako Kontuen Ganbarako iragarki oholean jarriko ditu Epaimahaia lehiaketaldiko balorazioaren ondorioak, oposizioaldia hasi baino lehen.

Lehiaketaldian ateratako puntuazioa, izangaiek oposizioaldiko probetan ateratakoari gehituko zaio.

8. oinarria.- Oposizioaldiaren hasiera, garapena eta kalifikazioa.

8.1. 1997ko irailetik aitzina hasiko da oposizioaldia, eta lehen ariketaren eguna Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, hamabost egun lehenago, gutxienez.

8.2. Ez dago zertan argitaratu gainerako ariketak egiteko ondorengo deiak. Hala ere, Nafarroako Kontuen Ganbararen iragarki oholean jarri beharko ditu Epaimahaia iragarkiok, gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago.

8.3. Oposizioaldiak honako ariketa hauek izango ditu:

a) Ariketa praktikoa, kontabilitate publiko eta pribatuari buruzko kasu bat edo gehiago egitea, gehienez ere bost ordutan; kalkulu eta estatistikari buruzko kasu praktikoa ere izan ditzake. Gehienez ere 25 puntu eman ahal izango dira, eta gehienezko puntuazioaren erdia atera beharko da, gutxienez, gainditzeko.

b) Ariketa praktikoa, Epaimahaiak aurkeztutako kontu-ikuskaritza kasu bat edo gehiago egitea, gehienez ere lau ordutan. Gehienez ere 25 puntu eman ahal izango dira, eta gehienezko puntuazioaren erdia atera beharko da, gutxienez, gainditzeko.

c) Ariketa teorikoa, deialdi honen II. eraskinean agertzen diren gaiak buruz Epaimahaiak egin ditzakeen galdera bat edo gehiago idatziz erantzuteagehienez ere lau ordutan. Gehienez ere 20 puntu eman ahal izango dira, eta ariketa ez da baztertzaileria izango.

8.4. Plika itxien sistema erabiliko da a) eta b) ariketak zuzentzeko.

Hona c) ariketa teorikoa egiteko arauak: idatziz egingo da, eta oposiziogileek idazten bukatzen dutenean, gutunazal baten sartuko dituzte idatzitako orriak. Interesatuak eta Epaimahaiko idazkariak izenpetuko dute gutunazalaren solapan. Gutunazalak idazkariaren esku geratuko dira. Dagokion garaian, oposiziogileak Epaimahaiaren aurrean irekiko ditu berak izenpeturiko gutunazalak eta idatzitako orriak irakurriko. Ondoren, Epaimahaiak kalifikazioa egingo du.

8.5. Oposizioaldiko ariketak gainditzen dituzten izangaiek ateratako puntuazioa batu egingo da, oposizioaldiko guztizko puntuazioa atera arte, zeina izangaiek lehiaketaldian ateratakorai gehituko zaion.

8.6. Hautapen prozedurako edozein unetan Epaimahaia jabetzen baldin bada izangaien batek deialdian eskaturiko baldintzak betetzen ez dituela, baztertu egingo dute, interesatuari entzun eta gero, eta egin zuen aitorpenean zehaztasunik eza antzematen bada, erruaren berri emango zaio ohiko jurisdikzioari.

Epaimahaiak, egun berean emango dio baztertzearen berri Kontuen Ganbarako Lehendakariari.

8.7. Hautapen probak egiteko, hala eskatu duten izangai minusbaliatuentzat, denbora eta baliabide aldetik egokitzapenak jarriko dira, eskabidean adierazitakoaren arabera.

9. oinarria.- Ariketak gainditu dituztenen zerrenda eta Epaimahaiaren proposamena.

9.1. Lehiaketaldia eta oposizioaldia bukatuta, Epaimahaiak izangaien zerrenda, lorturiko guztiz-

ko puntuazioaren arabera, argitaratuko du Nafarroako Kontuen Ganbarako iragarki oholean eta Nafarroako Kontuen Ganbarako Lehendakariari igorriko dizkio puntuaziorik handiena lortu duten izangaiek izendatzeko proposamena eta ariketak gainditu dituzten izangaien zerrenda, lorturiko puntuazioaren arabera. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

9.2. Oposizio-lehiaketa gainditu duten izangaien zerrenda egiterakoan guztizko puntuazioen arteko berdinketarik gertatuz gero, oposizioaldian puntu gehiago atera duen izangaiari emango zaio lehentasuna.

10. oinarria.- Agirien aurkezpena eta behin-behineko izendapena.

10.1. Lanposturako eskubidea duten izangai onartuek, hurrengo agiriak aurkeztuko dituzte Kontuen Ganbararen Erregistro Orokorrean, proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeiei egun naturaleko epearen barruan:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren edo izangaia-aren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen duen agiri baliokidearen fotokopia konpultsatua.

b) Zinpeko aitortpena, eginkizun publikoetarako ezgaiturik edo gabeturik ez dagoela eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan ez dela adierazten duena.

c) Deialdi honetan parte hartzeko eskatu den tituluaren kopia kautotua edo fotokopia konpultsatua, edo hori egiaztatzeko nahikoa den agiria.

d) Zin egin edo hitz ematea, Nafarroako Foru Eraentza bete, Konstituzioari eta Legeei men egin eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela.

e) Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak luzatutako txostena, interesatuak karguari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten dion gaisotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela ziurtatzen duena. Izangaiek eskabidean alegatu baldin badu ehuneko 33 edo gehiagoko ezintasuna duela, ezintasunaren maila ere egiaztatu beharko du eta deialdi honetako lanpostuarekin bateragarri dela. Eskumena duten balorazio eta orientazio taldeek luzatu beharko dute egiaztagiria.

10.2. Funtzionario publiko diren izangaiek ez dituzte agiriarekin egiaztatu behar aurreko izendapena lortzeko frogatu zituzten baldintza eta betebeharrak. Zer administrazio publikoren menpe diren, haren egiaztagiria aurkeztea aski izango da, haien izaera egiaztatzeko.

10.3. Aurreko ataletan esandako agiriak aurkeztu ezina, behar bezala egiaztatua, gertatuz gero, Zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabili ahal izango da deialdian eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

10.4. Aipatu epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan salbu, agiriok aurkezten ez dituen ezin izango da funtzionario publiko izendatu, hasierako eskabidean faltsukeria egiteagatik izan dezakeen erantzukizuna kendu gabe.

Halakorik gertatuz gero, deialdi honetako 9.1. oinarrian aipatzen den zerrendan puntuaziorik handiena atera dutenen aldeko izendapen-proposamena egingo da.

10.5. Oinarri honetan aurreikusitako agiriak aurkeztu ondoren, Kontuen Ganbarako Lehendakariak behin-behinekoz izendatuko ditu izangaiak. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da izendapena.

10.6. Izangaietako inork oposizio-lehiaketa gainditzen ez badu, organo eskudunak erabakia emango du oposizio-lehiaketa eman gabe uzteko. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da erabaki hori.

11. oinarria. Praktika aldia.

11.1. Sei hilabeteko praktika aldia gainditu beharko dute proposatutako izangaiak nomina eta plantilako funtzionario izendapena lortzeko.

11.2. Deialdi honetako 10.5. oinarriak aipatzen duen behin-behineko izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hogeita hamar egun naturaleko epearen barruan hasiko da praktika aldia. Aldi horretan, bere mailako funtzionarioei dagozkien eskubide berberak izango dituzte izangaiak eta kontu-ikuskaritza teknikariei dagozkien eginkizunetan arituko dira.

11.3. Kontuen Ganbarako Lehendakariak, Kontuen Ganbarako langileei entzun ondoren, baloratu egingo du izangaiak praktika aldia nola aprobetxatu duten, eta gai edo ez gai kalifikazioa emango du aipatu aldia bukatzean.

12. oinarria.- Karrerako funtzionario izendatzea eta jabetza hartzea.

12.1. Praktika aldia bukatu ondoren, izangaiak gai kalifikazioa atera baldin badu, Kontuen Ganbarako Lehendakariak funtzionario izendatuko du, behin betiko, eta izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

12.2. Izangaiak praktika-aldian ez gai ateratzen badu edota oposizio-lehiaketaren jarduketan ondoriozko eskubideei uko egiten badie, deialdi honetako 9. oinarrian aipatzen den zerrendan agertzen den hurrengo izangaiak beteko du lanpostu hutsa.

13. oinarria.- Azken araua.

13.1. Deialdi honen aurka administrazioarekiko errekurtsioa aurkeztu ahal da Nafarroako Auzitegi Nagusian, indarreko legerian ezarritakoaren arabera, deialdia argitaratu eta bi hilabeteko epearen barruan.

I. ERASKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

A. Merezimendu akademikoak. Gehienez 5 puntu.

1. Deialdi honetara aurkezteko bide ematen duten erdi mailako titulazio edo diplomaturetako ohorezko matrikula bakoitzeko, gehienez 0,10 puntu.

2. Deialdi honetara aurkezteko bide ematen duten erdi mailako titulazio edo diplomaturetako bikain bakoitzeko, gehienez 0,05 puntu.

3. Erdi mailako beste titulu edo diplomatura batzuk: gehienez 1,00 puntu.

4. Goi mailako tituluak: gehienez 1,00 puntu.

5. Unibertsitate masterra: gehienez 1,00 puntu.

6. Doktoradutza: gehienez 1,00 puntu.

7. Aurretik baloratu gabeko ikasturte osoak: gehienez 0,20 puntu.

8. Doktoradutza ikastaroak: gehienez 0,05 puntu.

9.- Bestelako merezimendu akademikoak: gehienez 0,30 puntu.

Deialdiaren xede den lanpostuaren izaera eta nolakotasunei nola egokitzen zaizkien, horren arabera baloratuko dira merezimendu akademikoak.

B. Lanbide curriculumak. Gehienez 12 puntu.

1.- Kanpo-kontrolako organoetan edo enpresa pribatuan kontu-ikuskaritzan, Kontuen Ganbarako kontu-ikuskaritza teknikari bat aritzen den zereginetan edo maila handiagokoetan, izandako esperientzia urte bakoitzeko: 1,00 puntu.

2.- Administrazio publikoan edo enpresa pribatuan barneko kontu-ikuskaritzan, Kontuen Ganbarako kontu-ikuskaritza teknikari bat aritzen den

zereginetan edo maila handiagokoetan, izandako esperientzia urte bakoitzeko: 0,50 puntu.

3.- Kontu-ikuskaritzako lan solteak egin badira, Epaimahaiak 0,10 puntu emango du, gehienez, lan bakoitzeko, egindako kontu-ikuskaritzaren dedikazioa, garrantzia eta motaren arabera.

4.- Kudeaketa ekonomiko eta finantzieroaren arloko lanpostuetan aritutako urte bakoitzeko: 0,25 puntu.

C. Bestelako merezimenduak. Gehienez 3 puntu.

1.- EEEko hizkuntza ofizialak jakitea, behar bezala egiaztatutik: gehienez 1,00 puntu.

2.- Deitutako lanpostuarekin zerikusia duten ikastaro eta prestakuntza ekintzak: gehienez 1,00 puntu.

3.- Bestelako merezimenduak, hala nola argitalpenak, hitzaldiak, bekak, eta abar: gehienez 1,00 puntu.

Deialdiaren xede den lanpostuaren izaera eta nolokotasunei nola egokitzen zaizkien, horren arabera baloratuko dira merezimenduak.

II. ERASKINA GAIAK

I. Ogasun Publikoa.

1. gaia. Alor publikoaren jarduera finantzieroa.

2. gaia. Jarduera finantzieroaren azterketa: Ogasun publikoa.

3. gaia. Zerga politika eta gastu publikoa. Zerga politika eta dirusarrera publikoak.

4. gaia. Aurrekontuaren kontzeptua eta zikloa.

5. gaia. Estatuaren aurrekontuaren kontzeptzio klasikoa eta haren krisia.

6. gaia. Egonkortasun ekonomikoaren, baliabideak esleitzeko eraginkortasunaren eta garapen ekonomikoaren ideologiak eta formulak.

7. gaia. Programakako aurrekontua.

8. Dirusarrera publikoak: kontzeptua eta motak.

9. Enpresa eta salneurri publikoak.

10. gaia. Zerga: kontzeptua eta osagaiak.

11. gaia. Nafarroako Foru Komunitateko zuzeneko eta zeharkako zergak.

12. gaia. Zor publikoa. Inflazioa zerga gisa.

II. Konstituzio-zuzenbidea, administrazio-zuzenbidea eta Nafarroako arau bereziak

1. gaia. 1978ko Espainiako Konstituzioa: Atariko titulua. Koroa. Gorte Nagusiak. Konstituzioaren erreforma.

2. gaia. Gobernua eta Administrazioa. Gobernuaren eta Gorte Nagusien arteko harremanak. Botere Judiziala. Estatuaren lurralde-antolaketa. Konstituzio Auzitegia.

3. gaia. Administrazioa eta Zuzenbidea. Administrazio-antolaketa hertsapen juridikoak.

4. gaia. Europako Batasuneko Zuzenbidea eta erakundeak. Foru Komunitateko antolamendu juridikoan duten eragina.

5. gaia. Toki Administrazioa. Foru Komunitateari buruzko aipamen berezia.

6. gaia. Erakunde administrazioa. Foru Komunitateari buruzko aipamena.

7. gaia. 1839ko urriaren 25eko Legea. 1841eko abuztuaren 16ko Lege Hitzartua. 1979ko urtarrilaren 26ko Dekretu Hitzartua.

8. gaia. Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoak. 1990eko hitzarmenari buruzko aipamen berezia.

9. gaia. Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa: oinarritzeko hatsapenak. Nafarroako foru erakundeak.

10. gaia. Nafarroako Ogasun Publikoa arautzen duen Foru Legea.

11. gaia. Nafarroako Foru Komunitateko Gobernua eta Administrazioa arautzeari buruzko Foru Legea.

12. gaia. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratuei buruzko Foru Legea.

13. gaia. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua arautzen duen Foru Legea.

III. Kontu-ikuskaritza publikoa eta kontuen auzitegiak.

1. gaia. Kontu-ikuskaritza, haren motak. Alor Publikoari buruzko aipamen berezia.

2. gaia. Kontu-ikuskaritzaren hatsapen eta arauak. Alor Publikoari buruzko aipamen berezia.

3. gaia. Kontu-ikuskaritza prozedurak. Izaera eta norainokoa.

4. gaia. Barne kontrola: definizioa eta helburuak. Kontu-ikuskaritza barne-kontrola ebaluatzea.

5. gaia. Kontu-ikuskaritzaren plangintza: helburuak eta gauzatzekoaldiak.

6. gaia. Kontu-ikuskaritzako txostenak. Orokor-tasunak eta edukia. Iritzi motak.

7. gaia. Dirusarrera eta gastu publikoen kontu-ikuskaritza. Enpresa publikoaren kontu-ikuskaritza.

8. gaia. Legezketasun eta eraginkortasun kontu-ikuskaritza alor publikoan.

9. gaia. Goi mailako erakunde ikuskatzaileak edo kontu auzitegiak. Orokortasunak. Kontrol esparrua. Parlamentu eta gobernuekiko harremanak.

10. gaia. Espainiako Kontu Auzitegiaren egungo eraketa, hari buruzko Lege Organikoan eta haren funtzionamenduari buruzko Legean: antolaketak eta zereginak. Europako Batasuneko Kontu Auzitegia.

11. gaia. Nafarroako Kontuen Ganbara: bilakera historikoa eta egungo erregulazioa.

12. gaia. Nafarroako Kontuen Ganbara: antolaketak eta funtzionamendua.

III. ERASKINA

JAUN HORI:

_____ J/A.k, ____ urte eta _____
N.A.N. zenbakia duenak, _____n, _____
_____ kalendar, __ zk.an, __ pisan, _____ posta
kodea, bizi denak, _____ telefono zk.a duenak,

AZALTZEN DU:

1. Nafarroako Kontuen Ganbaran funtzionario gisa arituko den kontu-ikuskaritza teknikari lanpostua, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdiaren berri izan duelarik, bertan parte hartu nahi duela.

Aipatu deialdia _____ (e)ko ____ zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Minusbaliatua dela, eta horregatik eskatzen duela ondoko egokitzapena, adierazitako arrazoiengatik (beste orrialde batean zehaztuko dira minusbaliotasunaren nondik norakoak eta eskatzen diren egokitzapenak).....

Inongo minusbaliotasunik ez duela.....

(X batez adierazi behar dena)

2. Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean betetzen dituela. Hurrengo titulua duela _____, eta eskabideari erantzen diola merezimenduen zerrenda, eta baita azterketa-eskubide gisa 1.000 pezeta ordaindu izanaren egiaztatzea ere

3. Euskaraz badakiela egiaztatzeko proba egin nahi duela, deialdiaren 2.1.c) oinarriak aurreikusitako ondorioetarako (Euskaraz badakiela eskatutako titulazioarekin egiaztatu ezin badu bakarrik).....

4. Horretarako izendatzen badute, hitza ematen duela hirugarren oinarriko bigarren puntuari aipatzen diren dokumentuak aurreikusi epean aurkezteko eta praktiketako kontu-ikuskaritza teknikari lanpostuaz jabetzeko, behin-behineko izendapen jakinarazi eta hurrengo 30 egunen barruan.

Azaldutakoaren arabera, J.T.G. horri ESKATZEN DIO onartua izatea Nafarroako Kontuen Ganbaran funtzionario gisa arituko den kontu-ikuskaritza teknikari lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketan.

Iruñean, 1997ko _____ren ____ (e)an.

Sinadura:

NAFARROAKO KONTUEN GANBARAKO LEHENDAKARI JAUNARI

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.800 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta, 12, 3</p> <p>31002 IRUÑEA</p>
--	---